

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



■ URUMEA HERRIGUNEA

## Iraitz Agirrek gaur, hitzaldia

Marxismoa eta feminismoa izango ditu hizpide gaur Iraitz Agirrek, Urumea Herri Gunean. Hitzaldia emango du 19:00etatik 20:30etara bitartean. ■

■ GAZTELEKUA

## Santo Tomas feria, egitarau bereziari hasiera emateko

Gabonetarako egitarau berezia prestatu du Gaztelekuak, Udaleko hainbat sailek elkarlanean antolatutako Neguko Oporaldietarako egitarauaren barruan. Bihar Biterin jarri dute zita, 16:30etan, Santo Tomas eguna ospatzeko. Etzi, berri, 17:30etan Gaztelekuan bitxigintza tailerra izango da, aditu batek gidatuta. Bestalde, ekitaldi gehiago izango dira, doan eta libre, baina batean izena eman behar da: hilaren 28an eskalada egiteko, 2 euro eta gurasoen baimena eraman behar dira lehenbailehen Gaztelekura. ■

■ IRAKURKETA KLUBA

## Urte berrirako saioetan, izena

Urte berriarekin Irakurketa Kluba martxan jarriko da berriro: 3 eta 5 urte arteko umeentzako eta hauen guraso edo hezitzaileen zako saioak gidatuko ditu Galzagorriko dinamizatzaile batek, 17:30etan euskeraz, urtarrilaren 10, otsailaren 7, martxoaren 7, apirilaren 4, maiatzaren 16 eta ekainaren 13an. Helburua da ipuin, kantu, olerki eta hitz jolasekin ondo pasatzea eta irakurketa eta euskal bibliografiaren ezagutza sustatzea. Parte hartzeke izena eman behar da Udal Liburutegian. ■

■ TREN ZERBITZUA

## Greba, bihar

Sindikatuak deituta, greba egingo dute bihar Renfe eta Adif tren zerbitzuetako langileek. Hori horrela, Donostialdeko tren zerbitzuan eragina nabaritu da: zerbitzu minimoak %75ekoak izango dira puntako orduetan, %50ekoak, ordu lasaietan. ■

■ OROIMEN HISTORIKOA 2018

## Gerran ihes egindakoen bizipenak, antzezlanean

'Ligeros de equipaje. Crónica de la retirada' antzezlanea ikusi ahal izango da gaur, doan, 20:00etan Biterin, Oroimen Historikoaren inguruko jardunaldiak bukatzeko. Erakusketak irekita segiko du.

MILAKA lagunek egin zuten ihes Frantziara, 1938-39ko gerra garaian, eta hroietako hainbat bizipen pertsonalak oinarri, fikziozko obra osatu du Producciones Viridiana Centro de Producción Teatral taldeak. Gaur ikusi ahal izango da, doan, 20:00etan Biterin. Bi aktoreen artean, ia 50 pertsonai interpretatuko dituzte.

Antzezlan honekin bukatuko dira Udalak antolatutako Oroimen Historikoaren inguruko jardunaldiak. Dena den, Juantxo Egañaren erakusketak, XIX-XX. mendeetan Hernaniko gizarteak bizitutako migrazio fenomenoak bilzen dituenak, irekita segiko du urtarrilaren 5era arte, Biterin. Bertan datu estatistikoak edota irudiak topatu daitezke. ■



■ BERTSOLATA

## Bertsolari gazteekin hasiera gaur, Bertsolatari

Kontrakantxa Gaztetxean egingo dute saioa, 20:30etan, debalde. Bertso-paper lehiaketako sariak ere banatuko dira. Bigarren jaialdia ere izango da aurten, 29an. Sarrerak orduan jarriko dituzte salgai.

GAURKOA aurtengo Bertsolatari bi jaialdietan aurrenekoa izango da. Izan ere, aurten, bi egingo dira.

Gazteak ariko dira, iluntzeko 20:30etan hasita Kontrakantxa Gaztetxean.

### Bertsoak eta sariak

Berria izango da gaurko bertso saioa, Bertsolatariaren barruan. Bertso Eskolako gazteek emango dute, debalde, 20:30etan hasita Kontrakantxa Gaz-

tetxean; Beñat Mujika, Andoni Mujika, Joanes Illarregi, Irati Majuelo, Haritz Mujika eta German Urteaga izango dira bertsolariak.

Horrez gain, antolatzaileen esanetan «aurten sasi-bertsolarien artean antolatutako bertso-paper lehiaketako sariak ere banatuko dira. Emaitza txukuna izan da, aurreneko urtea izateko». Da-Da-Da lehiaketa da. Lehendik emandako gaien bueltan; parte-har-

tzaile bakoitzak 5 eta 8 bertso artean idatzi behar izan ditu.

**Jaialdi nagusia, hilaren 29an** Bigarren jaialdia hilaren 29an egingo da, 19:30etan Sandiusterrin. Bertsoan ariko direnak izango dira Maialen Lujanbio, Agin Laburu, Oier Iurrumendi, Beñat Iguaran, Miren Artexe eta Beñat Gaztelumendi. Saio honetarako sarrera erosi behar da, baina egunean bertan, saioa hasi aurretik ja-

iriko dituzte salgai, Sandiusterrin.

**Ohitura zaharrei ere, eutsi** Aurtengo Bertsolatan berrikuntzarik falta ez bada ere, Iraulio Pantalone Bertso Eskolak ez die izkin egin ohitura zaharrei ere. Horrela, astelehenean Olentzerorekin ibiliko dira baserriz baserri katnuan, 15:30etan Biteritik aterata, eta urte zahar egunean errondan aterako dira. ■

**BAIETZ HERNANIK!**  
AMAIERA FESTA  
ABENDUAREN 23AN, 12:30EAN  
BITERI KULTUR ETXEAN  
Kidam Magoa  
Bertsolariak  
Kilimok musika-taldea  
Zigor DZ  
Eta sorpresa gehiago!  
ETORRI!

OPARITU EDERTASUNA  
ETA ONGIZATEA  
**nibiru**  
UNIKO EBENIZTUA DENTZAN  
Kobido Liftinga  
Spa tratamendua  
MASAJEAK  
Manikura  
Pedikura  
Indiba tratamendua  
Fotopeluziazioa  
Automakillaje ikastaroa  
IZPIZUA 1 - HERNANI  
T. 943 24 35 60  
[www.nibiruedergintza.com](http://www.nibiruedergintza.com)

**Tripontzi jatetxea**  
PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTSALADAK  
PLATER KOMBINATUAK  
ARRAI FRESKOA  
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724

**AKELENEA**  
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian  
**Zorionak eta urte berri on!**  
Abenduaren 22tik 2ra oporretan egongo gara  
Urtarrilaren 3an berriro ere zuekin izango gara  
Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ / **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

## UDALA PLENOA



Bi mozioak onartu ziren, OHren abstentzioa eta gainontzekoen aldeko botoekin.



Mario Diez Fernandez abokatua.

# Oposizioa kontra, 2019rako 32,3 milioi euroko aurrekontua onartzeko

Iruña-Veleiako auziaren eta Kote Cabezudo kasuaren inguruko mozioak ere onartu ziren, OHren abstentzioa eta gainontzekoen aldeko botoekin.

LUZE jo zuen astearteko Plenok. Aurkeztutako bi mozioen (www.kronika.eus) irakurketa-ekin hasi ziren, 2019rako aurrekontuak eta Euskara Planaren VI. Plangintzari heldu aurretik.

### Iruña-Veleiari, irtenbidea

Aurreneko mozioan, herritarrek eskatu zuten Iruña-Veleiako auzia argitzea. Bederatzi urtez instrukzio fasean egon den auzia da, eta 2018ko maiatzaren hasieran jaso dute auzi-petuek, Eliseo Gil eta Oskar Escribanok, akusazio-identifikazioa.

Orain Hernani, epaiketa bukatzean apelazioetarako tartea egongo dela ulertuta, abstenitu egin zen, eta gainontzeko alderdiek mozioa onartu zuten.

### Justicia Poetica elkarteak, Kote Cabezudo auziaz

Bigarren mozioa, Mario Diez Fernandez abokatua lehendakari den Justicia Poetica elkarteak aurkeztu zuen, Kote Cabezudo auzia deitutakoaren inguruan, akusazio partikularra gehitu nahi izan zuen herritarrekin batera.

Bertan, besteak beste, eskatu zen «gaitzespen sendoen adieraztea pertsonen sexu-kaltegabatasuna urratzen duen ekintzen aurrean», eta era berean, «biktimei eta kalte-tuei elkartasun eta laguntza (...) helaraztea, sexu-abusuen-gatik prozesu judizial orok biktimari jasanarazten dion trantzea» kontuan hartuta.

EH Bildutik Garazi Etxarri zinegotziak adierazi zuen «indarkeria matxista lehen mailako arazoa» dela eta adierazpenaren alde zeudela. EAJ eta PSE-EE ere alde agertu ziren, eta OH abstenitu egin zen, «laguntza instituzionala Hernanin eskatzea ulertzen ez» zutelako eta «elkar-

### Musika Eskolaren lanaldi murriztuaren 8 plaza sortuko dira.

tearen helburua zein den» ere ez dakitelako. Mario Diez Fernandez abokatuak adierazi zien «elkartearen sorrera berria» delako webgunean informazioa falta dela, baina «biktimak ordezkatzen bost urte» daramazkiela. «Biralda egin zen bideoa argitaratu nuenetik 28 biktima ordezkatu ditut. Gure asmoa da udaletxe guztiek adierazpen instituzionala onartzea, urte hauetan isiltasuna besterik ez baitugu ikusi, eta ez dugu ulertzen». Denera, «bide judizialtan 17 auzi penal» daudela azpimarratu zuen, eta «aurreneko biktima 1988koa» dela. Zenbat egon daitezkeen ez dakitelako herriz herri babes eske jo dute.

### Postu berriak, RPTan

Hurrengo puntuan Udala Lanpostuen Zerrenda, RPTa aldatzea onartu zen EH Bilduren aldeko eta EAJ eta OHren kontrako botoekin, eta PSE-EEren abstentzioarekin.

Besteak beste, Musika Eskolan 8 plaza sortuko dira lanaldi murriztuaren, udal eskalategian beste plaza bat sortuko da, herri lanetarako lorezaina erretiratzeko ur eta argi postua aterako da eta udaltzain ofizial lanpostua sortuko da. OHk «ahalegina ona» dela iritzi zuen, baina «behar lukeenetik urrun» dagoela. PSE-EEK prozesuaren inguruan galdetu zuen, eta Luis Intxauspe alkateak argitu zuen «orain RTPan jaso eta 3 urteko epean hornitu» beharreko postuak direla, eta Enplegu Planean zehaztuko dela nola. EAJ kontra agertzearen arrazoen

artean, berriz, «lansarien maila baxua» azpimarratu zen.

### Galarretan eta Karabelen, inbertsioak

2019ko 32.300.000 euroko udal aurrekontuari\* dagokionez, EH Bilduren aldeko eta oposizioaren kontrako botoekin onartu zen. Sozialistek hainbat puntutan «sintonia» lortu izana azpimarratu zuten, baina udal gobernuaren proiektua «ez da gurea», azaldu zuten. EAJk ere proposamenarekin bat ez zetorrela azaldu zuen, eta OHk «kudeaketan arduragabekeria» egotzi zion udal gobernu taldeari.

Besteak beste, udal gobernu taldeak aurreratu zuen inbertsioak egingo direla Galarreta eremuan edota Karabeleko apartamentuetarako obran, eta zerbitzu sozialari ekarpena %8 igoko dela, «alderdi guztien babesekin», Xabier Lertxundik azaldu bezala.

### Euskara Planak, eztabaida

Zalantza edo gaizki ulertuak Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Planaren inguruan sortu ziren. Herritarrek, nahi izanez gero, udaletxe-arekiko harremanak euskeraz izan daitezkeen bermatzea du helburu, Koro Etxeberria zinegotziak azaldu bezala. «Helburua da administrazioa euskalduntzea» gehitu zuen alkateak. EAJ alde agertu zen, eta PSE-EEK abstenitu egingo zela iragarri zuen, bozkatu baino lehen aldegin bazuen ere. OH hasieran kontra agertu zen, bando batzuk euskera hutsean argitaratu izanagatik. «Akatsa» izan zela onartu zuen alkateak, eta OH azkenean abstenitu egin zen. ||

\*2019ko udal aurrekontuen inguruko erreportaje zabala, larunbateko Kronikan.

## ESKU PELOTA

# Trinketeko finalera, hiru kadete hernaniar

Azken jardunaldiko partiduetatik 12 irabazi dituzte hernaniarrek, eta 5 galdu.

PARTIDU onak jokatu dituzte pelotari hernaniarrek azken jardunaldian, eta 12 irabazi eta 5 galdu dituzte.

Emaitza garrantzitsuenen artean, Gipuzkoako Trinkete Txapelketakoa nabarmendu ditu elkarteak: Unax Uitzu, Anartz Oiartzabal eta Xabier Salaberria kadeteek irabazi egin zuten Gaskan, eta hirurak pasa dira finalera.

Hernaniko Gabonetako Txapelketari dagokionez, Salaberria-Insausti eta Ariz-

mendi-Altuna bikoteek irabazi egin zituzten partidua, eta jardunaldi baten faltan, finalerako sailkatuta daude Xabier Salaberria aurrelaria eta Josu Altuna atzelaria.

Kontrako emaitzen artean, Xuban Iturbe infantilarena dago; Gipuzkoako Errendimendu Txapelketan 2 eta 1 galdu zuen Aloña Mendiren kontrako final laurdena, eta kanporatua izan da. Dena den, egindako lan ona nabarmendu du klubak. ||

## EUSKARA ARI DU

### Igandean festa, urteko erronka agurtzeko

Bukaerara iritsi da Baietz Hernanik! urtebeteko erronka, eta Euskara Ari Duk festa giroan borobildu nahi du. Horrela, igandean, 12:30etan, Biterira gerturatzeko gonbidapena luzatu du: bertsolariak, magoa, abeslariak eta musika taldeak... izango dira, eta hamaiketako eder bat. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† JOSE ANTONIO APEZETXEA ZUBIRI**

Atzo hil zen, 90 urte zituela  
- Goian Bego -


Animaren zuzendaria: Esteban Irurtzun; emaztea: Juana Elizalde; seme-alabak: Oxenton eta Arantxa, Jesus Mari eta Arrate, Pili eta Jose Ignacio, Oxelux eta Mari Jose, bilobak: Ander, Aimar, Mikel, Antton, Ainhoa, Ane, Aiora, Xanet eta Irati; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **BOST ETA ERDIETAN, AMABIRJIN SAKONDUAREN** parroki elizan egingo den hiletara.

Aldez aurretik, mila esker.

**Goizuetan, 2018ko abenduaren 20an**

OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 10:30ak arte.



**JOSE ANTONIO APEZETXEA ZUBIRI**

Abenduaren hemeretzia, ez da izan egun ona gure ondotik joan zaigu, hain maite genuen gizonez momentu on txar guztietan, gure ondoan zegona eskerrik asko denagatik ta ikusi arte attona.

**ZURE BILOBAK**

Ander, Aimar, Mikel, Antton, Ainhoa, Ane, Aiora, Xanet eta Irati

**Goizuetan, 2018ko abenduaren 20an**

## IRAGARKI MERKEAK

**LOGIKALINE** enpresak **BOST TELEOPERADORA LANPOSTU** bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidalari c.v. rrrh@logikaline.com** edo deitu **943 31 86 06**

**Zerbitzaria behar da esperientziarekin asteburuetarako.**  
Deitu: **679 476 992** (asteleheneetik ostiralera, 15:00etatik 17:00etara)

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)